# LAN ESKAINTZA

## Urnietako ONBIZI merkataritza-elkarteak honako hau bilatzen du:

**Eskaintzaren deskribapena:**

Merkataritza dinamizatzeaz eta kudeatzeaz arduratuko den pertsona.

**Lanpostuaren lekua:**

Urnieta.

**Bete beharreko eginkizunak:**

- Elkartearen kudeaketa eta plangintza ekonomikoa.
- Elkartea onuradun duten diru-laguntzak izapidetzea.
- Udalarekin hitzarmenak negoziatu eta izapidetzea.
- Kanpainak planifikatzea eta kudeatzea.
- Lankidetza-hitzarmenak kudeatzea.
- Webgunearen eta sare sozialen komunikazioa eta kudeaketa.
- Prestakuntzak antolatzea.
- Bazkide berriak erakartzea.
- Izapide burokratikoak.
- Elkartekideari telefono bidezko eta aurrez aurreko arreta ematea.
- Udalarekin lankidetzan aritzea hainbat ekimen abian jartzeko: kanpainak, prestakuntzak, bestelako proiektuak...
- Kanpainetako materiala banatzea.

**Baldintzak:**

- Enpresen kudeaketan, administrazio publikoarekiko harremanetan eta diru-laguntzen kudeaketan esperientzia duen pertsona.
- Pertsona dinamikoa eta gizartekoia, lidergo-gaitasuna duena.
- Ezinbestekoa da Euskaraz jakitea.

**Kontratu mota:** 6 hilabete, jarraitzeko aukerarekin.

Lanaldi erdia (20 ordu astean)

**Lanean hasteko data:** Berehala

**Oharrak:**

Profila betetzen baduzu, bidal iezaguzu zure CVa helbide honetara: **urnietaonbizi@gmail.com**, DINAMIZATZAILEA ETA MERKATARITZA KUDEAKETA adieraziz.